



**4/2021 TXOSTENA, URTARRILAREN 29KOA, KONTRATAZIO
PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEKO BATZORDE
IRAUNKORRARENA.**

**XEDEA: DEKRETU-PROIEKTUA, HEZKUNTZA SAILAREN EGITURA
ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA EZARTZEN DUENA.**

I.- AURREKARIAK.

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak —abenduaren 28ko 48/2020 Dekretuaren bidez aldatua berau— Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen ditu, eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen ditu; hala, honako hau ezartzen du 10. artikuluan:

«10. artikulua.— Hezkuntza Saila.

1.— Honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio Hezkuntza Sailari:

a) Irakaskuntzaren alorrean Autonomia Estatutuan ezartzen diren ahalmenak, araubide orokorrekoak zein araubide berezikoak, etapa eta maila desberdinak barnean direla, bai eta goi-mailako hezkuntza ere.

Bizitza osoan kualifikazioak eskuratu edo areagotzea dakarten ikaskuntza-jarduerak ere sartzan dira.

b) Lanbide-heziketaren arloko zuzendaritza-, antolamendu- eta plangintza-eginkizunak betetzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legearen 19.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, eta nekazaritzako eta itsasketa- eta arrantza-arloko enplegurako lanbide-heziketaren eta arautu gabeko lanbide-heziketaren arloan eskumena duten sailen eta erakundeen laguntzarekin.

c) Zientzia-politika; ikerketa teorikoa eta aplikatua bultzatu eta koordinatzea.

d) Sailari atxikita dauden edo haren mendeko diren sektore publikoko entitateak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.

e) Legeek eta erregelamenduek ematen dizkioten gainerako ahalmenak.



2.- Sail honi atxikitzen zaizkio Lanbide Heziketako Koordinazio Organo Gorena, «Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia» zuzenbide pribatuko ente publikoa, «Haurreskolak» partzuergoa eta «Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia – Musikene».

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak hauxe dio azken xedapenetatik lehenengoan: «Sailburuek, Jaurlaritzari buruzko Legearen 26.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hala badagokio, lehendakariari aurkeztuko dizkiote, 2020ko abenduaren 31 baino lehen, bakoitzaren saileko erregelamendu organikoen proiektuak, onarpena eman diezaien. Sailei esleitutako jardun-arlo bakoitzarentzat Jaurlaritzaren programan jasotako helburuei eta programa hori argitu duten irizpideei egokituko zaizkie proiektuok.

Erregelamendu horiek antolaketa-irizpide hauek beteko dituzte: austeritatea, egiturak soiltzea, eduki zabaleko egiteko-arloak bateratzea, egiturazkoak ez diren staff egiteko-arloak identifikatzea eta informazioaren teknologiez ahalik gehien baliatzea».

Beraz, dagokion dekretu-proiektua egitea sustatu da, Hezkuntza Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko, eta horren bidez, 10. artikuluko horretan esleitutako esparruei dagozkien eginkizunak gauzatu ahal izateko.

2020ko urtarrilaren 11n, sail horrek eskabide bat aurkeztu zuen, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzardeak dekretu-proiektuari buruzko txostena egin zezan.

Prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetutako espedientean (erreferentzia: DNCG_DEC_109576/20_07), honako agiri hauek agertzen dira:

- Dekretu-proiektuaren testua (txosten juridikoaren ondoren erantsitako bertsioa).
- Horri buruzko justifikazio-memoria, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak sinatua.
- Sailaren txosten juridikoa.



II.- ESKUMENA.

Txosten hau Kontratazio Publikoaren Aholku Batzardeak eman behar du, nahitaez, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoak (aurrerantzean, 116/2016 Dekretua), 27. artikulua a) letraren 1. apartatuan ezarritakoari jarraikiz, xedapen orokorraren edukiak, zati batean, kontratazio publikoaren eremuko alderdiei eragiten baitie, eta ondorioz, Gobernu Kontseiluari baitagokio hura onartzea.

Bestetik, eta 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua 2. apartatuaren a) letraren arabera, egitura organikoak eta funtzionalak arautzeari dagokionez, Aholku Batzardeari dagokion aholkularitza-eginkizuna Batzarde Iraunkorrak beteko du.

Irismenari dagokionez, dekretu-proiektutik sektore publikoko kontratuen araubide organiko eta juridikoari eragiten dioten esparruak soilik jasotzen dira txosten honetan; izan ere, kontratazio publikoaren gaineko eskumenak bakarrik dagozkie Kontratazio Publikoaren Aholku Batzarde honi. Horiek horrela, honako hauek aztertuko dira:

III.- KONTRATAZIOAREN ARLOAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK

Ondoren, proiektuan jasotako esparru guztiak transkribatuko dira, baina Sailaren egiturari buruzko artikulua gehituta; izan ere, kontratazio-organoen dibertsifikazio nabarmena dakarrenez, aldez aurretik aztertu behar dira egitura hori osatzen duten organoak:

«2. artikulua.- Egitura orokorra.

Hezkuntza Sailak, bere eskumenak baliatzeko, honako organo hauek izango ditu:

A) Organo nagusiak:

1.- Hezkuntzako sailburua.

1.1.- Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza.



- 2.- Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza.
 - 2.1.- Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritza.
 - 2.2.- Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza.
 - 2.3.- Azpiegitura, Baliabide eta Teknologia Zuzendaritza.
 - 2.4.- Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza.
- 3.- Hezkuntza Sailburuordetza.
 - 3.1.- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza.
 - 3.2.- Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza.
 - 3.3.- Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza.
- 4.- Lanbide Heziketako Sailburuordetza.
 - 4.1.- Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza.
 - 4.2.- Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza.
- 5.- Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza.
 - 5.1.- Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza.
 - 5.2.- Ikerketa Zuzendaritza.

B) Organo periferikoak:

Lurralde historiko bakoitzean Hezkuntza Sailak dauzkan lurralde-ordezkaritzak.

C) Sektore publikoko erakundeak:

Sektore publikoko honako erakunde hauek geratzen dira atxikita Hezkuntza Sailari:

- 1.- Administrazio instituzionala:
 - 1.1.- Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia, zuzenbide pribatuko erakunde publikoa.
- 2.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko beste erakunde batzuk:
 - 2.1.- Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia-Musikene, fundazio pribatua.
 - 2.2.- Haurreskolak Partzuergoa.

D) Kide anitzeko organoak eta beste organismo batzuk:

Beste hauek ere atxikita daude Hezkuntza Sailari, aurreikusita dagoenaren arabera:

- 1.- Euskadiko Eskola Kontseilua.
- 2.- Euskadiko Unibertsitate Kontseilua.
- 3.- Euskadiko Unibertsitateko Ikasleen Aholku Batzordea.
- 4.- Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua.
- 5.- Musika Irakaskuntzen Aholku Batzordea.
- 6.- Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua.



- 7.- Ikerketarako Euskal Kontseilua.
- 8.- Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutua (EEI).
- 9.- Unibertsitateaz kanpoko Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI).
- 10.- Lanbide Heziketako Sormen Aplikatuko Euskal Institutua (IDEATK).
- 11.- Lanbide Heziketari Aplikatutako Ikerketa eta Berrikuntzako Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroa (TKNIKA)
- 12.- Lanbide Heziketako Koordinazio Organo Gorena.
- 13.- Berritzegune Nagusia eta eskualdeko Berritzeguneak».

«6. artikulua.- Sailburuordetzak.

Sailburuordetza bakoitzaren arduraduna sailburuorde bat izango da, hierarkian sailburuaren mendeko zuzena izango dena. Sailburuordetzan garatutako jardueri eta sailburuordetzaren mendeko zuzendaritzari eta gainerako administrazio-organo eta -unitateei dagokienez, egiteko hauek dagozkie Hezkuntza Saileko sailburuordeei:

[...]

i) Errekurtsoak ebaztea, indarrean dagoen legerian aurreikusten den kasuetan.

[...]»

«7. artikulua.- Zuzendaritzak.

[...] Egiteko hauek izango dituzte Hezkuntza Saileko zuzendariek:

[...]

d) Bere jardun-arloan sartuta dauden espedienteetatik eratorritako gastua kontratatu, baimendu eta onartzea, indarrean dagoen legeriaren arabera txikitzat jotzen diren kontratuei badagokie.

[...]»



«8. artikulua Administrazio eta Zerbitzuetako Sailburuordetza.

1.- Saileko sailburuordetzen zeregin orokorrez gain, honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzari:

[...]

c) Eragin ekonomikoa duten egintza eta xedapenak ikuskatzea, eta sailari baimena ematea 1.000.000 eurotik gorako zenbatekodun espedienteetako gastua egiteko, betiere Gobernu Kontseiluaren eskumenak errespetaturik. Halaber, Gobernu Kontseiluaren eta eskuordeko batzardeen baimena behar duten gastu-espedienteak eta beste edozein espediente ekonomiko koordinatzea.

d) Sailaren kontratazio-organoa sailburuordea da, baldin eta lizitazioko oinarritzko aurrekontua edo, halakorik ezean, balio zenbatetsia 1.000.000 eurotik gorakoa bada.

[...]

f) Hezkuntza-sistemako baliabide materialak eta kudeaketa ekonomikoa eta administratiboa koordinatzea, eta, hartarako, aipatu baliabideak plangintza orokorrari egokitzen zaizkion ala ez gainbegiratu eta egiaztatzea.

[...]

m) Sailaren barne-kudeaketarako behar diren baliabide informatikoak zuzendu, koordinatu eta bultzatzea, Internet eta Intranet zerbitzuak barne direla.

2.- Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren mende daude Kudeaketa Ekonomikoaren, Langileriaren Kudeaketaren, Azpiegituren, Baliabideen eta Teknologien eta Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzak».

«9. artikulua.- Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritza.

[...]



e) Unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan, garraioaren eta jantokien gaineko azterketak, proposamenak eta kudeaketa egitea.

[...]

j) Zuzendariari dagozkio honako hauek: 1.000.000 eurotik beherako espedienteetan sailaren gastua baimentzea, eta Gobernu Kontseiluaren eta eskuordeko batzordeen baimena behar duten gastu-espedienteak eta izaera ekonomikoa duen beste edozein prestatzea. Apartatu honetan jasotakotik salbuetsi egiten dira kasu bakoitzean dagokion kontratazio-organoak onartu dituen kontratu publikoetatik datozen gastu-baimentzeak, dekretu honetan ezarritakoaren arabera.

[...]»

«11. artikulua.– Azpiegitura, Baliabide eta Teknologia Zuzendaritza.

1.– Saileko zuzendaritzen egiteko orokorrez gainera, honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio Azpiegitura, Baliabide eta Teknologia Zuzendaritzari:

a) Hezkuntza-sistema egoki garatzeko, azpiegituretako zuzkidurak kudeatzea.

b) Unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan eta sailaren gainontzeko bulegoetan higiezinak eraiki, handitu eta hobetzeko prozedurak izapidetzea eta ikuskatzea.

c) Obra-proiektuak ikuskatzeko zerbitzu espezifiko gisa jardunez, obrak ikuskatzea, ikuskapen teknikoa, kalitate-kontrola eta ziurtapenen segimendua egitea; eta, halaber, itundutako prestazioa egoki gauzatzeko beharrezko jarraibideak eman eta erabakiak hartzea; betiere, beste sail edo organo batzuei dagozkien egitekoak eragotzi gabe.

d) Unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoak eta sailaren gainontzeko bulegoak ekipatzeko zuzkidura —hala orokorra nola berezia— kudeatzea, hargatik eragotzi gabe beste organo batzuei dagozkien egitekoak.



e) Sistema eta baliabide informatikoak planifikatu, diseinatu eta ezartzea —sailari dagozkionak—, hezkuntza-sistema informazio-gizartearen premietara behar bezala egokitzeko xedez.

f) Sailaren informatika arloko beharrezanek planifikatzea eta koordinatzea, hala aplikazioei nola euskarriei dagokienez.

[...]

2.- Aurreko paragrafoan adierazitako gaietan, Hezkuntza Saileko lurralde-ordezkaritzak Azpiegitura, Baliabide eta Teknologia Zuzendaritzaren mende egongo dira funtzionalki».

«12. artikulua.- Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza.

[...]

4.- Kontratazioaren arloan honako hauek dagozkie:

a) Saileko organo guztiei aholkularitza ematea honako arlo hauetan: sektore publikoaren kontratuei buruzko legeria; kontratuak gauzatzean eta legeria horretan araututako prozeduretan hura egoki aplikatzea, hartara eragotzi gabe beste organo batzuei esleitutako eskumenak.

b) Sektore publikoaren kontratuei buruzko legeriari lotutako prozedurak izapidetzea, ezertan eragotzi gabe Kontratazio Batzorde Nagusiaren eskumenak eta beste organo batzuei arauz esleitutako eskumenak.

c) Sailaren kontratazio-organoa zuzendaria da, betiere lizitazioko oinarrizko aurrekontua edo, halakorik ezean, balio zenbatetsia 1.000.000 eurokoa edo hortik beherakoa bada, gastu-onarpena barnean dela; kanpoan uzten dira dekretu honetan beste organo batzuei esleitutako kontratu txikiak.

[...]»



«16. artikulua.– Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza.

1.– Saileko zuzendaritzen egiteko orokorrez gain, honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari, betiere Hezkuntza Sailburuordetzari dagozkion eskumenen eremuan:

[...]

d) Unibertsitateaz kanpoko ikastetxe eta unitate publikoak sortu, eraldatu eta kentzeko prozedurak hasi eta izapidetzea.

[...]

f) Ikastetxeetako oinarrizko ekipamendu-moduluak eta baliabide materialak diseinatzea, Azpiegitura, Baliabide eta Teknologia Zuzendaritzarekin batera.

[...]

n) Helduen hezkuntzako zentroetako langileen eta baliabide materialen beharrianak planifikatzea, bai urrutiko modalitatean, bai presentzian.

o) Helduen hezkuntzarako unitateak eta ikastetxeak sortu, eraldatu eta kentzea, bai eta irakasle-premiak definitzea ere, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzarekin eta Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzarekin koordinatuta.

[...]

2.– Aurreko puntuan adierazitako gaietan, Hezkuntza Saileko lurralde-ordezkaritzak Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzaren mende egongo dira funtzionalki.

[...]»

«18. artikulua.– Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza.

1.– Saileko zuzendaritzen egiteko orokorrez gain, honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzari:

[...]



d) Lanbide Heziketako ikastetxe eta unitate publiko eta pribatuak sortu, eraldatu eta kentzeko prozedurak hasi eta izapidetzea.

[...]

e) Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketan zehaztea zein diren behar diren oinarritzko espazio-, instalazio-eta ekipamendu-moduluak, Lanbide Heziketako titulu bakoitzarentzat.

[...]»

«20. artikulua.– Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza.

1.– Saileko sailburuordetzen zeregin orokorrez gain, honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzari:

[...]

e) Egoki ikusten dituen kontratu eta hitzarmenak egitea unibertsitate, departamentu, ikastetxe, unibertsitate-institutu eta ikerketa-zentroekin, edo erakunde publiko edo pribatuekin, Euskal Autonomia Erkidegoko zein kanpoko.

[...]

b´) Ikerketarako eta teknologiaren garapenerako planak behar bezala gauzatzeko eta plan horiek ebaluatzeko tresnak diseinatzea, ikerketarako programa eta proiektuei, giza baliabideen hautaketa eta prestakuntzari eta azpiegituren sorrerari dagokien arloan, hargatik eragotzi gabe arlo honetan Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailari esleitu zaion eskumena.

[...]»

«21. artikulua.– Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza.

[...]



2.- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate publikoei dagokienez:

[...]

d) Inbertsio eta azpiegituretarako urte anitzeko programa egin, onartu eta ikuskatzea.

[...]»

«22. artikulua.- Ikerketa Zuzendaritza.

Saileko zuzendaritzen zeregin orokorrez gainera, honako egiteko eta jardun arloak dagozkio Ikerketa Zuzendaritzari:

[...]

b) Irizpideak ezartzea, ikerketarako eta teknologia-garapenerako programak eta proiektuak ebaluatzeko, hautatzeko, gauzatzeko, kontrolatzeko eta horien jarraipena egiteko, baita unibertsitate-eta zientzia-arloan azpiegiturek sortzeko programak ebaluatzeko, hautatzeko, gauzatzeko, kontrolatzeko eta horien jarraipena egiteko ere.

c) Proposatzea Hezkuntza Sailak zer baliabide bideratuko dituen ikerketa-proiektu eta -programetarako nahiz ikerketa-azpiegituretarako, eta proiektu eta azpiegitura zientifikoei buruzko datu-banku edo erregistro bat sortzea, baliabideak efizientzia handiagoz kudeatu ahal izateko.

[...]

q) Hezkuntza Sailari apirilaren 29ko 96/1997 Dekretuan eta urtarrilaren 13ko 2/2009 Dekretuan ezartzen zaizkion funtzioak garatzea.

96/1997 Dekretuaren bidez, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea sortu eta arautu zen, eta, horretarako, batetik, Euskadiko zientzia-teknologia ikerketarako erakundeekiko elkarlana eta koordinazioa finkatu zen, eta, bestetik,



erakunde horien ezaugarriak eta eginkizunak zehaztu ziren. Gerora, 278/2000 Dekretuak aldatu egin zuen 96/1997 Dekretua. 2/2009 Dekretuaren bidez, berriz, Bitariko Transferentzia Batzardeak 2008ko abenduaren 11n hartutako Akordioa onetsi zen; akordio horren arabera, ikerketa eta garapen zientifiko nahiz teknikoko eta berrikuntzako funtzioak Euskal Autonomia Erkidegoari transferitu zitzaizkion.

[...]»

«23. artikulua.– Lurralde Ordezkaritzak.

1.– Hezkuntzako sailburuaren mendetasun organikoaren eta hari atxikitako sailburuorde eta zuzendaritza bakoitzaren mendetasun funtzionalaren pean, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza bana izango dute lurralde historikoen, Lurralde Ordezkaritza batek gidatuta; egiteko hauek izango ditu:

[...]

h) Kontratazio-arloko eskumena, bigarren xedapen gehigarrian jasoa.

[...]

3.- Lurralde-ordezkariek funtzionalki gainera duten organoak ebatziko ditu Hezkuntzako lurralde-ordezkariek emandako administrazio-egintzen aurkako gora jotzeko errekurtsoak, dekretu honek adierazten duenaren arabera, eta xede duen gaia aintzat hartuta; betiere, araudi sektorialak zeregin hori beste organo bati esleitzen ez badiotik».

«BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Kontratu txikiak.

Kontratu txikiei dagokienez, organo hauei dagokie —euren eremu funtzionalean eta euren lurraldean— indarreko araudian gastu txiki gisa tipifikatutako eta euren funtzionamendurako beharrezko diren kontratuak kontratatzea, eta gastua baimentzea, ez badira kudeaketa zentralizatukoak, beste organo batzuen eskumenekoak edo ez badute eskumena duten erakunde hauek landutako proiektu teknikoak eskatzen:



- Lurralde-ordezkarriak.
- Ikastetxeen ekonomia- eta finantza-kudeaketaren araudian aurreikusitakoak.
- Lanbide Heziketari Aplikatutako Ikerketa eta Berrikuntzako Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroa (TKNIKA), abenduaren 1eko 222/2015 Dekretuaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutua (EEI).
- Lanbide Heziketako Sormen Aplikatuko Euskal Institutua (IDEATK).
- Euskadiko Eskola Kontseilua.
- Unibertsitateaz kanpoko Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI).
- Hezkuntza-sistemaren laguntza-zerbitzuak eta sailaren mendeko bestelako erakundeak, funts aurreratutako kudeatzeko baimena dutenak».

«HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.- Bitarteko propioentzako gomendioak.

Hezkuntza Saileko kontratazio-organismoek ere eskumena izango dute, baldintza beretan, obrak gauzatzeko eta zerbitzuak emateko kudeaketari buruzko gomendioak emateko, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko testu bateginaren 4.1.n) eta 24.6 artikuluetan ezarritako baldintzetan, gastua baimendu eta onartzea barnean dela».

Aipamen ugari jaso eta txertatu ditugu, testualki kontratazioari buruzkoak izan gabe ere, interesgarriak iruditu zaizkigun heinean, zentzu zabalean jorratzen baitute kontratazio-prozedura, plangintzari, prestaketari eta ikuskapenari buruz mintzatzen diren neurrian. Zeregin horiek, askotan, kontratazioa sustatzen duten zerbitzuen eta kontratuaren arduradunen eskumenekoak dira, eta ez dago eragozpenik Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko Dekretuan ager daitezen. Are gehiago, kasu askotan lagungarria izan daiteke, Administrazioaren ahalak diren zereginak kanpora ez ateratzeko eta kontratazio-organismoen, kontratazio-eremuen eta kontratuaren arduradunen arteko eginkizunak zedarrizteko.

Auto-antolaketaarako ahala errespetatu behar bada ere, ohartarazi behar da kontratazio-organismoak asko sakabanatuz gero, nahi gabe ere hainbat kontratutan zatitu daitezkeela batera lizitatu daitezkeen kontratuak, eta ez legean jasotako publikitate-prozedurak saihesteko asmotan, baizik eta ez delako ezagutzen zer izapidetzen ari den kontratazio-organo bakoitza.



Ondorio horietarako, Batzorde honek martxoaren 5ean emandako 1/2020 Gomendioa gogoratu behar da. Izan ere, Gomendio horren arabera, eta Legeak ezartzen duenari jarraikiz, kontratu txikiak salbuespena dira publizitatearen eta lehia askearen araubide orokorrean, eta, beraz, horien erabilera mugatu behar da, eta prozedura irekiaren bidez —prozedura sinplifikatua barne— izapidetutako kontratu handien eta esparru-akordioen alde egin.

Hala ere, sail honen kasuan, ez da harrizkoa hainbat kontratazio-organo egotea; izan ere, izapidetu beharreko kontratu asko —eta konplexutasun handikoak— daude. Hori izan daiteke Hezkuntza Sailaren kasua, batez ere ikastetxeen kopurua kontuan hartuta, oso zaila baita horien guztien kudeaketa-premiak bateratzea, nahiz eta zenbait arlotan lortzen den (hor dira informazioaren teknologiak, azpiegiturak eta ekipamendu jakin batzuk), Dekretuak berak nabarmentzen duen bezala.

Hala ere, ez da inoiz alde batera utzi behar kontratazio-organo guztiei dagokien alde zuzeneko koordinazio- eta plangintza-obligazioa, ahal den neurrian beharrezkoak ez diren zatikatzeak saihesteko, batez ere lege-iruzurrari dagokionez.

Gainerakoan, proiektuan transkribatutako paragrafoak kontuan hartuta, zehaztaperik hauek egin nahi ditugu:

- 7. artikuluan kontratu txikiei buruz egiten den aipamenak idazketa-akats bat du; gainera, «eratorritako» terminoak konnotazio espezifikoak izan ditu kontratazioaren esparruan; bestalde, zenbait ñabardura egiten zaizkio artikuluko horri dekretuan. Hori dela eta, gure iradokizuna da 7. artikuluko d) letra honela idaztea:

«d) Bere jardun-arloko kontratu txikien gastua kontratatzea, baimentzea eta onartzea, hargatik eragotzi gabe dekretu honetan kontratu horiei egiten zaizkien aipamenak, bereziki Bigarren Xedapen Gehigarrian».

- 8. artikuluko 1. apartatuak, d) letran, honako hau dio: «... lizitazio oinarriko aurrekontua edo, halakorik ezean, balio zenbatetsia, ...». Bada, «halakorik ezean» dioen tartekia aldatzea gomendatzen da, eta horren ordez jartzea «horrelakorik ez badago»; izan ere, oinarriko lizitazio-aurrekontua



beti agertu behar da, salbu eta horrelakorik ez badago —esaterako, esparru-akordio bat delako—; soilik horrelakorik ez dagoen kasuetan aplikatuko da balio zenbatetsiaren kontzeptua, oro har, oinarrizko lizitazio-aurrekontuarekin erkatuta oso desberdina baita. Hortaz, ez da aukeratzat agertu behar; baizik eta erabateko salbuespen modura: alegia, kontratazio-organoa zehazteko salbuespenezko kontzeptutzat.

- 11. artikuluko 1. apartatuko c) letraren testua (Azpiegitura, Baliabide eta Teknologia Zuzendaritzari buruzkoa), berez okerra ez bada ere, esan behar da ez duela salbuesten kontratazio-organoa kasu guztietan kontratuaren arduraduna izendatzeko obligaziotik, azken honen eginkizunak baitira letra horretan deskribatzen direnak. Baina, ad hoc izendatu behar da plegu bakoitzean, baita kontratu txikietan ere, baldin eta prestazioa kanpora atera bada (obren zuzendaritza fakultatiboa).
- 12. artikulua 4. apartatuan, kendu egin behar litzateke a) eta b) letretan kontratuen «legeriari» soilik egiten zaion aipamena; egokiagoa da kontratuen «araudiari» buruz hitz egitea.

Kontratazio-organoa zehazteari dagokionez, 8. artikulua kasuan «halakorik ezean» tartekiari buruz esandakoa aplikatzea aholkatzen da.

- 20. artikuluko 1. apartatuko e) letra nahasgarria da. Alde batetik, badirudi «egitea» terminoak «izenpetu» iradoki nahi duela, nahiz eta zehaztu egin beharko litzatekeen. Baina, hala balitz ere, kontuan izan behar da kontratazio-organoak Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea edo Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen zuzendaria direla —zenbatekoaren arabera—, kontratu txikien kasuan dagoen kontratazio-organo mordoaz gainera, baina horrek ez du esan nahi, inola ere, sailburuordeak kontratuak sinatu behar dituenik. Bestalde, eta hitzarmenei dagokienez, alde batera utzita 4. artikulua arabera horiek baimentzea eta sinatzea sailburuari dagokion, arreta berezia jarri behar da honako honetan: benetako kontratuak ez izatea, kostu bidezko kontraprestazioak dituztelako.



- 22. artikulua q) letran, Sailak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareari lotuta dituen eginkizunak jorratzen dira. Txosten honen gaia ez bada ere aipatzen dituen dekretuak aztertzea, komenigarria ikusten da letra honetan aipamen bat egitea azaroaren 8ko 9/2017 Legearen berrogeita hamalagarren xedapen gehigarriarekin duen loturari buruz; izan ere, lege horren bidez Espainiako ordenamendu juridikora eramaten dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak (aurrerantzean, SPKL). Aipatutako Xedapena oinarritzakoa da, eta Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemako eragile publikoek egindako kontratuei aplikatu beharreko araubidea ezartzen du, bereziki kontratu txikiei dagokienez.
- Kontratazioaren arloan planteatu daitezkeen administrazio-errekurtsoak direla-eta, bai 6. artikuluko i) letran (sailburuordeek beren eremuan errekurtsioak ebazteari buruzkoa, oro har), bai 23. artikuluko 3. apartatuan (Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako titularraren egintzen aurkako gora jotzeko errekurtsioei buruzkoa zehazki, non «funtzionalki gainera duten organoari» egozten baitzaio eskumen hori), egoki ikusten dugu aipatzea kontratazioan, gai espezifikoak denez, zehatzagoa dela adieraztea gora jotzeko errekurtsioak Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen aurrean jarriko direla, eta arlo horretan errekurtsioa jarri zaion egintza sailburuarengandik datorrenean, sailburuaren beraren aurrean. Hala ere, hori izango da Saileko titularraren eskumen bakarra kontratazio-arloan.
- Dekretu-proiektuaren Bigarren Xedapen Gehigarrian kontratu txikiak aipatzen dira, eta esandako kontratu horiek «kontratatzeko» hainbat organoari dagokiela ezartzen du. Ez da argi geratzen, ordea, kontratazio-organok izan behar duten edo horiek izapidetzera mugatu behar duten. Lehenengo kasuan, ondoren datorren zerrenda ez litzateke zuzena izango; izan ere, ez dira kontratazio-organok, ez Ordezkaritzak, ez aipatzen diren Institutuak, etab. Izatekotan, horien titularrak edo zuzendariak (pertsone fisikoak, betiere). Gainera, kasu horretan, berariaz aipatu beharko litzateke Xedapen hori, txosten honetan aztertu ditugun artikuluen testuan kontratazio-organok aipatzen direnean. Bigarren kasua bada, berriz, gastua dagokion kontratazio-organok baimendu eta onartu beharko luke.



Xedapen horri dagokionez, Batzorde honek azpimarratzen du ezen kontratazio-organoen dispertsioa, kasua hala bada, ez dela lagungarri kontratazioa hobeto planifikatzeko eta koordinatzeko, lehia-abantailak lortzeari begira edo eskala-ekonomien ikuspegitik; orobat, ez da lagungarri kontratu handiak zatikatu daitezen saihesteko (ez baita zatikatzerik komeni). Organoak ugaritzea ezinbestekoa bada sinatu beharreko kontratu kopuruagatik edo Sailari dagozkion beste arrazoi batzuegatik, koordinazio-figura bat ezartzea gomendatzen dugu, informazio guztia eduki ahal izateko eta aipatutako arazoak saihestuko dituzten erosketak zentralizatzeko formuletara jo ahal izateko.

- Hirugarren Xedapen Gehigarria osorik aldatu behar da. Baliabide propioei egindako gomendioak SPKLrekin desagertu ziren, eta, beraz, Xedapenaren izenburuari dagokionez, «baliabide propio pertsonifikatuei egindako mandatuak» izan behar lirateke (SPKLren 32. artikulua). Era berean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginari buruzko aipamenak egungo SPKLri buruz zehaztu behar dira, edo, bestela, gai horretan indarrean dagoen araudiari buruz, oro har.

Nolanahi ere, kontratazio-organoen araubide sakabanatu bera ezartzen du haientzat, eta baldintza berberetan, hemen handiak eta txikiak bereizteak inolako zentzurik ez duen arren. Mandatuak egiteko eskumena saileko organo bakar bati —edo biri, gehienez— esleitzea iradokitzen da, kontratuei buruz aipatu diren koordinazio-, sinplifikazio-, efizientzia- eta eraginkortasun-arrazoi berberengatik.

Azaldutako guztiagatik, **ALDEKO TXOSTENA** ematen zaio Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretuaren proiektuari, betiere proiektuaren edukia txosten honetan emandako gidalerroen eta aholkuen arabera egokitzen bada.